

Ezetz esan guran baietz esateaz

Urriaren 30eko negoziazio bilera eta azaroaren 9ko alde biko bilera.

Jorratutako gaiak:

- auzitegi medikuen aurreakordioa;
- eta Donostiako BJB.

AUZITEGI MEDIKUAK

Isabel Gabriel EAEko Justizia Administrazioako Zuzendariak behin eta berriro dio aurkeztu duten aurreakordioa ona ez ezik *oso ona* ere badela.

ORDAINSARIAK

Auzitegi osagileek eskatzen duten maila eskaintzen die: 27IIB, hots, Osakidetzan maila apalena. Baina lanpostuen balorazioarekin lotzen dute, iragankor bihurtu eta uko egiten diote gutxieneko maila dela idatziz jartzeari. Medikuek eta LABek susmo bera partekatzen dute: lanpostuen balorazioarekin maila jaitsiko ote dieten beldurra dugu. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorrean ez da gauza berria: balorazio baten ondorioz langile batzuk jaitsi dira mailaz beste batzuk igo direla. Eta guztiok dakigu nortzuk izaten diren igotzen direnak: betikoak. Hortaz, auzitegi mediku orokorrek benetako arriskua dute mailaz jaisteko. Aurreko zuzendaritzak halaxe esan zien 27IIB mailaren azpiko eskaintza egiten ziela.

Izan ere, denetan txarrena da zuzendariak alde biko bileran ez zuela nahi ziurtatu gutxieneko hori. Are lotsagarriagoa da kontuan harturik PSEk (Justizia Saila kudeatzen du egun) 2016an EAJri (gaurko gobernukidea) exijitu ziola auzitegi medikuak 27IIB maila horretan kokatzeko. Aurreko Justizia Sailarekin parekidetasuna gauzatu zitekeen, IV. Akordioaren 63.2 artikuluan oinarri hartuta. Lehengo sailarekiko negoziazio mahai batean, horrelaxe ezan zuen Carlos Cubero AMEEko zuzendariak eta ondo baino hobeto azpimarratu zuen parekidetasunaz eta ez balorazioaz ari ginela. Zuzendaritza berriak, aldiz, esan du ezinezkoa dela parekidetasuna auzitegi osagileentzat eta egin behar dena balorazioa dela. Hala eta guztiz ere, proposatzen duten ordainsari-igoera lineala da, hain zuzen auzitegi mediku kategorია guztientzat berdina.

Labur esanda, ez dute nahi bete Eusko Legebiltzarraren gehiengoak, PSEren eskariz, adostu zuena. Eta gainera konfiantza izateko diote, balorazioan gutxieneko hori eman egingo dietela, idatziz gera dadila nahi ez badute ere. Horrek guztiak honako hau frogatzen du: bai balorazioa, bai berori eratzeko gidaliburua eta bai inguruko beste guztia

dagoeneko diseinaturik dagoela azkenean nahi dutena ordaintzeko. Gezurra badirudi ere, fidatzen zailago dira gaurko arduradunek erakusten dituzten eraginkortasun eza eta kudeaketa kaskarra aurreko ekipokoen despotismoa baino. Lehen behintzat bagenekien nolakoak ziren. Gauza batean bat datoz, den-denak dira ez eraginkorrek eta kudeatzaile penagarriak.

Aurreko egunetan aurrekordioari egindako aportazioak jasotzen dituen agiria eman ziguten auzitegi medikuek honako asmo honekin: egitekoak ziren alde biko bileretan zuzendariari ematea, auzitegi medikuen izenean, jakina, baina baita sindikatuen bermearekin. Harritu ginen jakitean zuzendariak ezein bileratan ez zituela jaso aportazioak. Suposatu beharko dugu posta elektronikoz helaraziko ziotela.

GUARDIA OSTEKO ATSEDENA

24 orduko guardiari dagokionez, tematuta jarraitzen du sailak: goizaldean suertatutako gertakaria artatu behar izatekotan, auzitegi medikuek lanera joan beharko lukete hurrengo egunean. Duten ezpezifikotasuna dela-eta, auzitegi osagileei dagokien arautegi bereziak ahalbidetzen du hurrengo eguna jaia izatea, 21:00etatik 09:00etara artean lan egin behar izanez gero. Bada, horrek sailari bost! Ez diete onartu nahi, eta kito! Horren gainean ere luze aritu ginen eta, izandako bi bileretan, garden baino gardenago geratu zen ez dietela nahi eman egokia den atsedenaldia. Beraz, PSEk nahi duelako jarraituko dute auzitegi medikuek gaur egun bezala.

PRESTAKUNTZA

Hau akabua da! Gabriel andreak esan zigun IVAPek auzitegi medikuek dituzten prestakuntza beharrak antzemateko ardura hartu duela. Medikuek memelo hutsak direla uste dute, ala? Zergatik ez egin azterketa hori AMEEk berak dituen baliabideekin? Dena den hauxe da esperpentikoena: ez du nahi onartu akordioan hasierako prestakuntza beharrezkoa dela. Ez da eskatzen beste kidegoetan ematen ez dena; izan ere, tutoretza eskatzea dute kudeatzaileek, laguntzaileek eta izapidegileek jurisdikziora heldu berritan. Bada, mediku berriak ez du izango bermaturik lanpostuan hastean beste mediku batek irakastea nola funtzionatu behar duen. Zuzendariak dio ez duela horren gainean ezer ipiniko IVAPen azterketa ikusi arte. Gogoan hartu Administrazio Publikoetako Erakundeak ez duela ezagutzen AMEEren errealitatea.

AUZITEGI MEDIKUEN PAREKIDETASUNARI BURUZKO ONDORIOA

Hobe dugu honetaz hitz egiten ez jarraitzea, esandako edo egindako bakoitzak pentsarazten digulako zuzendaritza berri honek duen eraginkortasunik ezan eta denbora galtzen besterik ez dugula egiten.

Ezin argiago esan genion zuzendariari: Legebiltzarrean adostu zutena bete ezean berriro izango gaituzte aurrean. Soluzioa erraza da, gutxienez ari baikara. Zuzendariak konfiantza eskatzen digu, baina nola fidatu balorazioak eman behar duenaz, ez badituzte nahi gutxienekoak ere bete?

Sindikatuak lan-baldintzei buruz eztabaidatzeko solaskide bakarrak garela jakitun, bilera bukatzerakoan, galdetu zigun zuzendariak ea auzitegi medikuekin batzea zuen. LABek baiezkoa eman zion baina baita ohartarazi ere, guri adierazitako bera helarazteko bazen, hobe zuela ez batzartzea auzitegi medikuak kokotaraino daudelako eraginkortasun ezaz eta horrenbesteko gezurrez. Aldiz, bilera horretan sailburua, sailburuordea... baleude - izan ere aldarrikapenaren hiru zutabeak (ordainsariak, guardiak eta prestakuntza) jasotzen dituen akordioa erdieste aldera erabakitzeko ahalmena duten karguakurrerapausua izan liteke. Zuzendariak bertan behera utzi du gai honi buruz sindikatuuekin hitz egiteko programatuta zegoen bilera, auzitegi medikuen ordezkaritza batekin batzeko asmoz.

DONOSTIAko BULEGO JUDICIAL BERRIA

Sailak ekin eta ekin: Donostian BJB ezarri 2018ko lehenengo seihilekoan egin nahi du. Negoziazio bilerara Bulego Judizial Berrian aditua den aholkulari berria joan zen. Orain arte egindako ezarpenak berrikusiko ditu eta, haren esanetan, Donostiarako diseinatutakoa hobetzen saiatuko da.

Antolakuntza berri osoa aztertzen azken berrikustea (EAE osoan egindako ezarpen guztiak) Donostian BJB ezarri eta gero egingo dutela komunikatu ziguten. Horrezaz gain, bitartekari edo koordinatzaile ere ibiliko omen da aholkulari berria tartean sartuta dauden eragile guztien artean: epaileak, fiskalak, letraduak, beste kidegoetako langileak eta Eusko Jaurlaritza. Dirudienez, BJB ezartzeaz geroztik, agente guzti horien arteko harremanak hondatu samar daude. Nabaria da aholkulari berriak antolakuntza berriaren xehetasun guztiak ikertu dituela eta ondo ezagunak dituela orain arte BJBekin gertatu direnak. Aldi berean, badaki zeintzuk diren sistema berriak dituen akatsak honako hau ere onartzeraino: Gasteizen ZULUPetako langileak damututa daude Zerbitzu Orokor Prozesal Erkide eta Betearazpenekoa joan ez izanaz. Beraz, LABek aspaldian esan duenarekin bat egin du aholkularia: zerbitzu komunek bai, ondo dabilta, baina ZULUPak herrenka. Jakin badaki mostradoreetan langile falta handia dagoela. Labur esanda, gauzak ondo ez doazela ezagutu arren sindikatuok inplikatzera eta langileei aldeko iritzia helaraztea nahi du. Hau da, "onkeria" sustatu nahi du. LABek esan genion ez goazela inor engainatzera, aitzitik, sistemaren egiak kontatuko dizkiegula eta langileek berez ere badakitela BJBren ondoren lan-baldintzek hobera egin duten ala ez. Hortaz, beraiek esango dute.

Bilboko BJB dela eta, itxaron behar da, oso arazo potoloa baitago lekuarekin eta oraingoz ezin da pentsatu bulego judizial berria ezartzean.

Bulego judizial berriak dituen arazoak eta oztopoak langile gehiagorekin konpon litezke, hein batean behintzat. Hala ere, badu beste alde oso garrantzitsua: antolakuntza eta kudeaketa. edo eragile guztiak ados jartzen dira, edo norbaiten ekimenez adostera behartzen dituzte, bestela gero eta txarragora goaz: zerbitzuaren kalitatea, herritarrak artatzea, itxaronaldiak... justizia motela eta bidegabea betikotzen.